

Argibide bibliografikoak

Antzertia 1980 - 1990

Patri Urkizu

Azken hamarkada horretako Antzertiaren bibliografia argibideak emateko eskatu didatenez, burura datozkidan zenbait gozoa xume ematen saiatuko naiz, adieraziz aldez aurretik, hurbiltze huts gisara eta behin-behinekoak izango direla.

Badirudi egungo garai hauetan euskal literaturaren historian —eta gerraurrean batipat— aberatsena izan den esparrua ahaztuxegia dabilela, tamalgarria bait da oraindik gaur hainbat eta hainbat eskuizkribu argitaragabe edukitzea. Adibidez XVIII. mendeko hamahiru antzerki ezberdin lotan dautza bibliotekatan, hain "urria" eta "beranta" dugun literaturan. Halere, ez naiz lamentazioekin hasiko eta egin direnez ahalegintxo batzuk hutsune eta ahazturak betetzen eta konpontzen, horiek aipatzen saiatuko gara.

Ez naiz arituko, ordea, antzezkizun, antzeztalde, antzerti topaketaz, hots, espektakuluaz, ene aztergaia antzertia literatur jenero bezala ikertzea izango bait da, batzuek Ubersfield-i jarraikiz uste arren antzerkia ez dela literatur mota bat, antzezte praktika

soil bat baizik. Antzerkiak bere betegintza eta osatasuna honela aurkitzen badu ere, ene ustez ikertu beharrak dira emaitza horien aurrepausu guztiak, etorkia eta bilakabidea, nondik norakoa. Antzerkigilea bere etxean bakarrik edo antzokian, antzeztailerrean taldearekin ikuskizuna pentsatzen eta taxutzen hasten den une berberetik taulara dadino. Urratsak oso dira interes beretiko, ikuslearen plazer hitza eta irudia bilakatzen diren momenturaino. Baino hel diezaiogun gureari.

Beste hizkuntzatan gertatzen ohi den bezala, eta eremu hipikoetan ere bai, hala katalan eta galegoetan legez, euskal literaturan antzertiak leku oso txikia dauka produkzio osoan. Hain zuzen 1985. urteko antzerki kopuruak gonbaratz gero beste jeneroetako zifrekin honakook topatzen ditugu: narraziogintzak %54, olerkiak %18, eta antzerkiak %10, ondorengo urteetan beheraka jo duelarik arcago. Beraz, garbi dago argitaletxeek marginatu samarra daukatela alaba pobrea bezala, eta hau, noski, gizartearen islada dugu, ez bait du antzerti-gizonak gizartean garai batcan zeukan garrantzi eta ohorezko lekua, berau, nabarmena denez, telebista-gizonak hartu duelarik...

Antzerti testuak hiru sailetan banatuko ditugu: a) Sorketa-lanak direnak; b) Itzulpenak, eta d) Saio eta artikuluak.

1. Sorketa lanak

Deusere euskaraz idatzirik aurkitzen ohi ez duten antzeztalddeei eta itzulpenetara ia beti jotzen dutenei esan beharrean aurkitzen gara baditugula hirurogei antzerkigile argitaratuak hamarkada honetan. Noski, ez dira denak punta-puntakoak, ez eta azken berrikeriatara emanak, batzuk beste mendetakoak eta gerriurrekoak bait dira. Hala, 25 *Antzerki labur*¹ bilduman S. Onaindiak paratu dizkigunak, bertan agertzen direlarik "Lizardi", Agirrezabal, Mujika, Arratibel, Arozena, Arzeluz, Azkue, "Kirikiño", Ftxaniz, Monzon, Sabiaga eta Zubikarayren lanak. Bakarritzetak eta antzerki laburrak, gehienak irri eragiteko sortuak.

Herri teatroak, pastoralak, tragikomeriak eta astolasterrak merezizan dute ere zenbait ikerleren arreta. Honela, urtero Xuberroan pastorala jokatzearekin batera, libretoa ere argitaratu, izan ohi da, Etxahun Hiruhirikoa, Casenave, Heguiaphal, Aguergaray, Bidaxagar eta Davant xuberotar idazleei esker, Frantzako edo Bibliako historietatik aparte orain Euskal Herriko Historiaren pertsona nagusiak gaitzat hartuz. Garai hantean herri teatro hau herri eskola bazeen erlijioaren ikuspuntutik, oraingoan euskal abertzetasunaren histori leku bilakatu da. Beñat Oyharçabalek² 1982. urtean Bordeleko Unibertsitatean 3. zikloko tesi pastoralari eskaini zion, eta ikerketa, hala nola testua, Gipuzkoako Foru Aldundiak argitara berri du. Halaber, Iñaki Mozosek³ ihauerietako tragikomeria lan eder bat eskaini zien, Eusko-Ikaskuntzak argitaratua, eta neronek⁴ zenbait astolaster *Antzerti Zérbitzuko* testu-bilduman plazaratu nituen.

Esan bezala hain "berriak" ez diren antzerkigileen lanak merezizan dute ahanzturatik libratzea, eta hor daude antzokiratzearain S. Baroja⁵, A. Barriola⁶, J. Barbier⁷ edota G. Areosti⁸ bera.

Noizpait aipatu izan ditut gerraondoko hiru belaunaldi antzerkigintzan saiatuak, eta aitorru behar dut, egun ere hirurak bizirik eta irmo dirautela lancan. Hala Zubikarai⁹ eta Elias¹⁰ (Larzabalen¹¹) oroitzapena ezin ahantzia izango zaio euskal teatrozale orori), erlibideko Haranburu¹² eta Landart¹³, nola Anza¹⁴ eta Mendiguren¹⁵ gazteagoen artean kokatuko genituzkeenak, bakoitzak bere berezitasunekin, besteak beste.

2. Itzulpen lanak

Itzulpenaren beharra gero eta nabarmenagoa da gaurko Europan eta euskal kultur munduan. Halere, ez da batere erraza aurkitzea ez muga, ez eta duintasunczko oreka. Antzcztaldeak errazkerietara jo izan dute maiz, mimetismoak bultzaturik, arrakasta izan duten antzerkigile atzerritarra itzuliz eta antzokiratuz, pentsatzen bait zuten horrela beraiek besteen sona eta

ospea bereganatuko zutela. Baino ez da horrelakorik gertatu gehienetan. Zergatik?

Gauza jakina da gerraurreko antzerti gizonek ere maiz jotzen zutela erdal altxorrera. Gero, ordea, geureganatu, geure gisara birmoldatu ohi zituzten antzerkiak, oraingoan arrakastaz. Zilegi zen bidea eta egokia gainera. Hala Monzonek¹⁶ Molière-kin egin zuena.

Zilegi zen, eta egoki gertatzen ere, klasikoen eguncratzea, betiko gaiak soincko berriz jaztea, eta hala aintzinateko, Grezia-Eromako antzerkiak itzuli eta antzeztu izan dira, beste lurraldetan bezala, gurean ere, Eunpides lekuko. Gaztelaniazko autore zahar eta berriak ere izan dute oihartzunik. Lope de Rueda, A. Campiñón, Valle-Inclán, M. Legasse, A. Sastre besteen artean eta ezin ukatu hauetariko batzuk oso gureak ez ditugunik.

Hiru bilduma izan dira antzerkigile atzerritarrei babesia eta leku eman dietenak. EGAN aldizkariak, lehenik, bere orrialdetan literatur arrotzari betidanik eskaini dio leku berezia eta bertan irakur daitezke B. Brecht, Dacosta, Ibsen edota Ionescoren antzerki lanak. *Antzerti Zerbitzua*, Eusko Jaurlaritzaren babespean sortutakoak, argitara eman ditu ere D. Fo, C. Goldoni, Manuel María, J.P. Sartre, N. Shakespeare, G. Steinson edota A. Stridberg, penagarria delarik nola erakunde politikoen babespean zeuden bi liburu xorta hauek ezkutatu diren zenbait politikoren kultur axolagabekeriagatik. Eta azkenik, *SUSA bilduma* gaztea ere aipatu beharra daukagu bertan plazaratuak izan bait dira egun-eguneko antzerti gizonen lanak, hala Beneditti, Betti, F. Pessoa, J. Steinbeck eta Suskinorenak.

3. Saio eta artikuluak

Egunkarietan eman ohi zaion txokoaz aparte, antzertia nobedade bat zenean, antzertiaz ezer gutxi idatzi ohi da, baina noiz-pehinka badirudi kontzientzia txarren bat arintzeko asmoz edo talde-lan batzuk agertu izan direla hala Ipar nola Hegoaldean eta, beraz, horietaz mintzatuko gara orain.

Iparraldean, 1987. urtean bi liburuki argitaratzen dira teatroaz. Bata Haritschelhar¹⁷ jaunaren zuzendaritzapean taxutua eta Pastoralari eskainia, eta bestea¹⁸ P. Bidart - Tx. Peillen bikotearenpean eta Pabeko Unibertsitateak bere baitan hartua. Parte hartzaleen artean ondokoak: Duvert, Baratzabal, Oiharzabal, Aguergaray, Idiart, Bidegorri, Casenave, Granja, Landart, Laperrine, Arozena...

Hegoaldean azpimarragarriak dira ere *Jakin* aldizkari honen 37. alea, *Euskal Antzerkia 1876-1985* izendatua, partaide bertan gertatu zirelarik Barriola, Lasagabaster, Dorronsoro, Landart, "Antza", Arozena, Idiaker et al Urkizu; eta, bestetik, gorago aipatu dugun Mozosen ikerketa eta edizio-lana, hala nola Barrutiarri¹⁹ eskaini zitzaion talde lana.

Bizitza laburrekoa izanik ere, ezin ahantz daiteke, *Antzerti Berezia*²⁰ aldizkaria, bertan 1982-85 epeko artikulu eta saio interesarri anitz aurki bait daitezke.

Nor bere buruaz hitzegitea zilegi bada, hala bikit nere bi lantxo aipatzea, alegia, *Euskal Antzerkia*²¹ titulua daramana eta bulgarizazio-lan bat izanik eta zenbait hutsune eta akats gora behera Juan San Martinek "Oinarritzko liburu bat" bezala juzkatu zuena bata, eta *Zuberoako irri teatroa: Astolasterrak*²² bestea, 1988ko *Saiakera* Sariaren irabazle gertatu zena Irungo ohizko lehiaketan.

Ezer gutxi orotara esango luke norbaitek. Hiltzear dagoen hamarkada honen epaia ematerakoan, ordea, ez dut uste juzka daitekeenik antzertia esanez "deusetik deusera" iragan denik, edota euskaraz ez dakien erdal kritikari batek bezala, mespretxuz minimopetan dabilela adieraziz hainbat eta hainbat euskal teatrozaleren lanari muzin egin gabe.

Beude bere apaltasunean ohar eta bibliografia argibideok deusere euskaraz topatzen ez duten antzetaldeen lagungarri, edota euskal literaturaren zalearentzat oroitgarri eta hurbiltze gisara.

- ¹ Santi ONAINDIA: 25 *Antzerki labur*, Euskerazaintza, Bilbao, 1985.
- ² Benat OYHARÇABAL: "la pastorale Souletine. Édition critique de Charlemagne", Anuario de Filología de Julio Urquijo, XXII-3, Donostia, 1988.
- ³ Iñaki MOZOS: *Ibauteria Euskal Literaturan*, Eusko-Ikaskuntza, Hizkuntza eta Literatura 6, Donostia, 1986.
- ⁴ Patri URKIZU: *Astolaisterriak*, Antzerti 67, Donostia, 1984.
- ⁵ Serafin BAROJA: *Bertoak Pudente Tormesko Lazarillo Kontuak*, Txenteoa, Donostia, 1988.
- ⁶ Abelino BARRIOLA: *Dramak*, Euskal Klasikoak 12, Ibaizabal, Donostia, 1987.
- ⁷ Jean Barbier: *Supazter zokoak*, Euskal klasikoak 16, Kriseltu, Donostia, 1987.
- ⁸ Gabriel ARESTI: *Antzerkia*, Gabriel Aresti Saila 7, Susa, Donostia, 1986.
- ⁹ Augustin ZUBIKARAY: *Mondi ta itxaso*, Antzerti 62, Donostia, 1983.
- ¹⁰ Imanol ELIAS: *Sendagai iraketsa*, Azpeitiko Udalak, 1982.
- ¹¹ Pierrick LARZABAL: *Ibauteriak*, Egan, 129-170 or., 1987.
- ¹² Luis ARANBURU: *Sabino Arana*, Kriseltu, Donostia, 1986.
- ¹³ Daniel LANDART: *Bai ala ez*, Egan, 227-283 or., 1983 (1-6).
- ¹⁴ "Mikel ANZA", et al.: *Rebeluko balnearioko mirukintua*, Susa 2, Donostia, 1985.
- ¹⁵ Xabier MENDIGÜREN: *Kampotarrak maisu. Kultur ministrariak ez digu erritu-kirik*, Susa 6, Donostia, 1987.
- ¹⁶ Pierrick LAFITTE, "Hazparneko Andrea (Molière-tik Monzon-crat)", *Euskal Literaturaz*, Euskal Klasikoak 35, Donostia, 317-321 or., 1990.
- ¹⁷ Jean HARITSCHIELHAR, et al.: *La pastorale. Théâtre populaire basque en Soule*, Lauburu, Baiona, 1987.
- ¹⁸ Pierre BIDART; Tx. PEILLEN, et al.: *Eskual Antzertia. Le théâtre basque*, Université de Pau et des Pays de l'Adour, 1987.
- ¹⁹ Gidrique KNÖRR, et al.: *Pedro I de Barrutia. Aramaio 1682 - Arrasate 1759. Gabonetako Ibuskizuna*, Gasteiz, 1983.
- ²⁰ *Antzerti berezia*: 1-13 zh., Antzerti Zerbitzua, Donostia, 1982-1985.
- ²¹ Patri URKIZU: *Euskal Antzertia*, Anizentzi Zerbitzua, Donostia 1984.
- ²² Patri URKIZU: *Zuberoako irriteatroa; Astolaisterriak*, GK, Donostia, 1988.

TEATRO VASCO EN LA DECADA DE LOS 80**THEATRE BASQUE DANS LES ANNEES 80**

El profesor Patri Urkizu comienza lamentando el abandono que sufre por parte de los estudiosos de la literatura uno de los campos más ricos en la historia de la literatura vasca. El teatro es igualmente la hija pobre de la producción con un 10% de la producción literaria de 1985, por ejemplo, y se encuentra marginado por las casas de edición.

El autor aborda el teatro no como espectáculo sino como género literario. Divide su estudio en tres apartados en los que analiza los trabajos de creación, las traducciones y, en tercer lugar, los ensayos y artículos. En cada uno de los apartados señala las tendencias bibliográficas más importantes así como las obras y autores más relevantes.

Le professeur Patri Urkizu commence par regretter l'abandon que subit de la part des spécialistes de la littérature, l'un des domaines les plus riches de l'histoire de la littérature basque. Le théâtre qui, par exemple, représente 10% de la production littéraire de 1985 est aussi un enfant pauvre de celle-ci et il se trouve mis à l'écart par les maisons d'édition.

L'auteur aborde le théâtre non comme un spectacle mais comme un genre littéraire. Il divise son étude en trois parties dans lesquelles il analyse les travaux de création, les traductions et enfin les essais et les articles. Dans chaque partie, il indique les plus importantes tendances bibliographiques ainsi que les ouvrages et les auteurs les plus remarquables.